



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 21a

39. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Euroerregioan sartzearen bidez Nafarroako Foru Komunitatearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitaniaren arteko lankidetzaren berreskuratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, “Villa de San Adrián” XX. lehiaketaren bideragarritasun ekonomikoa ahalbidetzeko hartutako konpromisoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, hiriarteko garraioari eta egun dauden emakidei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Erriberako ur-beharrizanei erantzuteko azterlanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, enpresak sortzean egon ohi diren oztopo burokratiko eta administratiboak murrizteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Tokiko Azpiegituren Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, etxebizitza eskariak Nafarroan dituen ezaugarriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, interes orokorreko eta sozialeko obra eta zerbitzuak egite aldera langabezian dauden pertsonak kontratatzeagatik toki entitatei diru-laguntzak emateko deialdi berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Sinboloei buruzko Legearen urraketak direla-eta Nafarroako Gobernuak ireki dituen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, udalek Nafarroako Sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra ez betetzea dela-eta 2015eko uztailean arte irekitako espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseak ukitutako herrietako alkateekin izandako bilereari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, Modernaren jardueraren gaineko ebaluazio-txostenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, energia eolikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, Nafarroaren Eguna ospatzeko Nafarroako Gobernuak prestatu duen programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).

- Galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak toki entitateei zenbait alorren kudeaketan laguntzeko duen unitate espezializatuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Galdera, Tokiko Administrazioa Berregituratzeko Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Euroerregioan sartzearen bidez Nafarroako Foru Komunitatearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitaniaren arteko lankidetzaren berreskuratzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Euroerregioan sartzearen bidez Nafarroako Foru Komunitatearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitaniaren arteko lankidetzaren berreskuratzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera egin du Euroerregioan sartzearen bidez Nafarroako Foru Komunitatearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitaniaren arteko lankidetzaren berreskuratzeari buruz (9-15/PES-00123). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

1. Nafarroako Gobernuak, 2015eko urriaren 21eko Erabakiaren bitartez, eskatu zuen Nafarroako Foru Komunitatea sar dadila "Akitania/Euskadi Euroerregioa" Lurralde-lankidetzako Europako Taldean.

Erabaki hori jada Eusko Jaurlaritzako lehendakari eta "Akitania/Euskadi Euroerregioa" Lurralde-lankidetzako Europako Taldeko buruari jakinarazi zaio, eta hark eskaera jaso izatearen berri eman du 2015eko azaroaren 11n.

Nafarroa euroerregio horretan sartzeko prozedurak eskatzen du izapide batzuk egitea, bai

Lurralde-lankidetzarako Europako Taldean bertan, bai haren kide diren estatuekin.

a) Barruko antolamenduari begira, Nafarroa sartzeari berarekin dakar Batzarrak Lurralde-lankidetzarako Europako Taldeak estatutuak alda ditzan, eta estatutuen funtsezko aldaketak badira, Lurralde-lankidetzarako Europako Taldeko kide guztiek eta kide diren estatu guztiek onetsi behar dituzte. Gainera, estatutuen aldaketak berarekin ekarriko du Lurralde-lankidetzarako Europako Taldearen oinarri den administrazioen arteko hitzarmena aldatzea.

Horrenbestez, prozesu honek eskatzen du lehendakariak edo Batzarrak berak estatutuak aldatzeko proposamena egin dezaten, eta proposamen hori idatziz eta zioekin aurkeztu beharko da. Batzarraren deialdi berezi hori, eztabaida hori eta erabaki hori bostetik hiruko gehiengo batek onetsi beharko ditu.

b) Behin hitzarmena eta estatutuak aldatuta, Nafarroak eskaera formal bat aurkeztu beharko dio Espainiako Estatuari, Lurralde-lankidetzarako Europako Taldeari atxikitzekoa, eta Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzari jakinarazi beharko dio Lurralde-lankidetzarako Europako Talde horretan parte hartzeko asmoa duela. Eskari horri proposatutako hitzarmenaren testua gehitu beharko zaio, bai eta proposatutako estatutuen testua eta Nafarroako Gobernuaren Erabakia bera, Lurralde-lankidetzarako Europako Taldean parte hartzeko asmoa egiaztatzen duena.

Behin eskaera eta aipatutako dokumentazioa jasota, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak eskatuko du arloa dela-eta eskudunak diren ministerioek kasuko txostenak bidal ditzaten. Nolanahi ere den, aginduzkoak izanen dira Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioaren txostena eta Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzarena.

Bere aldetik, Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioak Frantziako estatuari jakinaraziko dio jasotako eskaria.

Behar diren txosten guztiak jaso direnean edo haiek egin gabe hilabete iragan denean, Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzak ebazpen proposamen bat egingen du.

Azkenik, parte-hartzeari eta hitzarmenari onepena emateko ebazpena Ministroen Kontseiluari dagokio, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioi titularrak proposatuta. Ebazpen horrek amaiera emanen dio prozedurari eta Nafarroak Lurralde-lankidetzarako Europako Taldean parte hartzeko hitzarmena eta haren parte-hartzea onetsiko ditu, edo parte-hartzea baztertuko du, horretarako arrazoiak emanda.

Behin Lurralde-lankidetzarako Europako Taldeko Nafarroaren parte-hartzea onetsita, Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioak Frantziako estatua informatuko du.

Prozedura ebazteko gehieneko epea, Estatua-
ren jarduketari dagokionez, sei hilekoa izanen da, eskaera aurkezten denetik hasita.

Nafarroa aipatutako euroerregioan egiazki sartzeko bidezkoak diren egintzen azalpena eginda, eta jotzen dugunez horietako asko gaingintzea ez dagola Nafarroatik egin daitekeen bultzadaren baitan, arriskutsua da egutegi xehea egitea, baina, edonola ere, epea sei hilabete ingurukoa izanen da.

2. Egindako bigarren galderari dagokionez, jakitera eman behar dizut ezen, Nafarroa etorkizuneko Akitania-Euskadi-Nafarroa euroerregioan sartuta, aurrera egin eta sakondu nahi dela Akitaniarekiko eta Euskadirekiko erakunde-harremanetan eta lankidetzaharremanetan, truke-harremanen bitartez eta elkarren kohesio ekonomiko, sozial eta lurraldekoa garatzeko baterako proiektuak abian jartzearen bitartez, lurraldeen hazkunde adimentsua, jasangarri eta integratzailea sustatuz, eta hartara Europan toki adierazgarri bat izanen duen lankidetzaharreman handi bat sortzen lagunduz.

Azkenik, jotzen dut ugari direla proiektu honenkin zabaltzen diren aukerak; esate baterako, honako gai hauetan, beste batzuen artean: ingurumenarekiko errespetua gordetzen duten komunikabideen hobekuntza; ikerketa- eta berrikuntza-jarduerei balioa ematea; lurraldearen garapen jasangarria energia berriztagarrien arloan eta basoei balioa ematea; hezkuntza- eta prestakuntza-arloko metodo eta bitartekoak batera jartzea; nekazaritzari, elikadurari eta osasunari lotutako gaiak batera lantzea; euskara eta euskal kultura sustatzea; baliabide turistikoek batera balioa ematea, eta esperientzien trukea edo jokatibide egokien transferentzia eta zabalkundea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 18an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Galdera, “Villa de San Adrián” XX. lehiaketaren bideragarritasun ekonomikoa ahalbidetzeko hartutako konpromisoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Villa de San Adrián” XX. lehiaketaren bideragarritasun ekonomikoa ahalbidetzeko hartutako konpromisoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakite aldera ea Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak zer urrats egingen dituen aurreko Nafarroako Gobernuak hartutako konpromiso ekonomikoak betetzeko, “20 Certamen Villa de San Adrián” izenekoaren bideragarritasun ekonomikoa ahalbidetze aldera, eta, halatan, lehiaketa hori mantentzen dela ziurtatzeko (9-15/PES-00124). Hauxe da erantzuna:

2014ko abenduaren 12an, Gazte Txartela kontusailaren kargurako gastu-baimen bat izapidetu zen, 3.000 eurokoa, BEZa barne. Harekin SONO TONE enpresarekin kontratatu zen “20 Festival de

Pop-Rock Villa de San Adrián” izeneko jaialdiaren argiztapena eta soinua.

2014ko abenduaren 31n, SONO TONE enpresak –16516551K IFZ– 372. zk.ko faktura aurkeztu zuen, 3.000 eurokoa, BEZa barne, eta ordaindu egin zitzaion.

Horiexek dira horren inguruan egindako ordainketak. Ez dago idatziz jasota bestelako gastu hitzarturik dagoenik ordaintzeko “20 Festival de Pop-Rock Villa de San Adrián” jaialdia dela eta. Ez dakigu aurreko Nafarroako Gobernuak hitzeko bestelako konpromisorik hartu zuen aipatutakoaz gainera, baina jasota dagoena eta aurrera eraman zena aipatutakoa da.

Horixe informatu dezaket Villa de San Adrián 20. Pop-Rock jaialdia dela-eta aurreko Gobernuak hartutako konpromisoari dagokienez.

Jaialdiaren jarraitutasuna bermatzeko Departamentuak egingen dituen urratsei dagokienez, gaur arte ez dugu inolako eskaerarik jaso jaialdiaren hurrengo edizio baten finantzaketari begira. Horri buruzko eskaerarik jasoz gero, NKGIren bidez hura finantzatzeko aukerak aztertuko ditugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 27an

Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordea Ana Herrera Isasi

Galdera, hiriarteko garraioari eta egun dauden emakidei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hiriarteko garraioari eta egun dauden emakidei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak parlamentu-galdera egin du (PES-125). Hauxe Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatzeko duena:

Informazio batzuk eskatzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titularitateko erabilera orokorreko hirien arteko garraio-zerbitzu erregular publikoak finantzatzeko administrazio publikoek egiten dituzten ekarpen ekonomikoei buruz.

Lehenbizi, esan beharra dago Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titularitateko erabilera orokorreko hirien arteko egungo garraio-zerbitzu erregular publikoen mantentzerako administrazio publikoek egiten dituzten ekarpen ekonomikoak zenbait modutara artikulatzen direla, ondoren adierazi bezala:

– Linea defizitarioengatik kalte-ordaina ematea. Urtero, ustiaketa-defizita duten zerbitzuak –hau da txartelen salmentarekin zerbitzu-ematearen kostu ekonomikoa sustengatzen ez direneko zerbitzuak– ematen dituzten enpresek eskubidea dute kalte-ordain ekonomiko bat jasotzeko, Garraio zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 365/2009 Ebazpenean ezarritakoari jarraituz; izan ere, haren bidez aldatu ziren Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titularitateko erabilera orokorreko bidaiarien garraio-zerbitzu publiko erregular iraunkorraren emakidak, eta 2009. urtean eta hurrengoetan ustiaketa-defizita duten zerbitzuen enpresa emakidadunei kalte-ordain ekonomiko emateko araubide berezi bat ezarri zen.

– Udalekin eta garraio-enprekin egindako hitzarmenak, zerbitzuak areagotzeko. Kasu honetan, eta oro har udal interesdunek eskatuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titularitateko erabilera orokorreko hirien arteko garraio publikoko zerbitzuak areagotzera jo dugu, administrazioen arteko hitzarmenetan ezarritakoaren indarrez; izan ere hitzarmen horietan honako hauek finkatzen dira: zerbitzua bera, enpresak jaso beharreko kalte-ordain ekonomikoa eta administrazio sinatzaileen arteko banaketa.

– Administrazioaren baimen bereziak. Erabilera orokorreko hirien arteko garraio publiko erregularreko zerbitzuak kontratatzeko modalitate bat da, non zerbitzuaren esleipenduna den garraio-enpresak jaso beharreko kalte-ordain ekonomikoa ezartzen baita, kontratuan ezarritako baldintzei eta berrikuspen-irizpideei jarraituz.

– Udalekiko eta taxilarietarako hitzarmenak, erabilera orokorreko hirien arteko garraio publiko erregularreko zerbitzuak ezartzeko ibilgailu turismoen bitartez, bereziki landa-esparruek edo populazio dentsitate txikikoek eskatuta, halakoe-tan efizienteagoa baita zerbitzua halako ibilgailuen bitartez ematea, zeren eta hobeki egokitzen baitzaizkie oinarritzko beharrei eta populazio txiki eta barreiatuari.

– Taxilarietarako kontratuak, erabilera orokorreko hirien arteko garraio publiko erregularreko zerbitzuak emateko ibilgailu turismoekin, halakoak eskatzen direnean. Egundak dauden zerbitzuetan, finantzaketa Administrazioak eta udal sinatzaileek partekatzen dute.

Ekarpenei dagokienez, eranskin gisa gehitu dira 2005etik hasi eta 2014ra bitarteko (biak barne) urte bakoitzeko ekarpenei dagozkien taulak. Halaber, hitzarmenei buruzko informazio ekonomikoa dakarren taula berariazko bat erantsi dugu, bai eta haien oinarritzko alderdien deskribapena ere; besteak beste, udal sinatzaileak edo hitzartutako zerbitzuak ematen hasteko datak ager dira.

Ondoren, Nafarroako Foru Komunitateak eta udalek egindako urteko ekarpenen gutzitzaioaren laburpena jasotzen dugu:

Urtea	NFA	Udalak	GUZTIRA
2005	638.295,33 €	133.328,90 €	771.624,23 €
2006	724.970,11 €	185.847,37 €	910.817,48 €
2007	932.811,43 €	266.560,35 €	1.199.371,78 €
2008	1.094.245,95 €	296.593,97 €	1.390.839,92 €
2009	1.232.285,16 €	388.651,09 €	1.620.936,25 €
2010	1.272.088,74 €	485.125,64 €	1.757.214,38 €
2011	1.301.632,63 €	510.374,76 €	1.812.007,39 €
2012	1.770.588,72 €	507.004,98 €	2.277.593,70 €
2013	1.545.583,30 €	457.216,99 €	2.002.800,29 €
2014	1.560.356,67 €	437.100,66 €	1.997.457,33 €

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an.

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, Erriberako ur-beharrizanei erantzuteko azterlanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Santos Cerdán León jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Erriberako ur-beharrizanei erantzuteko azterlanei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Santos Cerdán León jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Erriberako ur-beharrizanei erantzuteko azterlanei buruz (9-11/PES-00126). Hauxe erantzun dio

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

Nori edo zer entitateri eman zaio Erriberaren ur-beharrizanei erantzuteko azterlanak egitearen ardura?

Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusiak informazioa eskatu zion Toki Administrazioeko Zuzendaritza Nagusiari, zehazki Toki Azpiegituren Zerbitzuari, Nafarroako Erriberarako ur-hornidurari buruz, zerbitzu hori baita Uraren goi horniduraren plan zuzentzailetik abiatuta behar diren azterlanak egiteko ardura duena. Informazio-eskari horri erantzunez, Toki Azpiegituren Zerbitzuak honakoa jakinarazi zuen:

“Txosten honetan ematen diren datuak heldu dira 16. azterlan-eremuan hornidurari buruz egin-

dako azterlanetatik. Eredu horretan sartzen dira Nafarroako Erribera osatzen duten herriak.

EGUNGO EGOERA

Honako hauek dira uraren goi hornidura kudeatzen duten entitateak:

- Tuterako Uren Batzarra
- Moncayoko Ur Mankomunitatea
- Cascante, Fitero eta Cintruénigoko Ur Mankomunitatea.
- Cortes
- Arguedas eta Valtierra
- Cadreita

Tuterako Uren Batzarrak goi hornidura ematen die Tuterari eta haren industrialdeei ez ezik, Castejón, Fontellas, Cabanillas eta Fustiñana udalei ere. Ebro ibaiaren kolubioian kokatuta dauden Ranney erako osinetan hartutako ura hornitzen da, eta horren osagarri, batzuetan, Lodosako Ubidetik ponpatutako ura erabiltzen da.

Epe labur-ertainean nahikoak izanen diren goi hornidurarako instalazioak dauzka, oro har egoera onean daudenak. Behar den bakarra da jarduketaren bat egitea osinetan eta erregulazio-biltegiren batean.

Behe hornidurarako sarea udalek (Castejón, Cabanillas eta Fustiñana) kudeatzen dute modu autonomoan. Tuteran eta Fontellasko sarearen zati batean, berriz, Tuterako Uren Batzarra arduratzen da kudeaketaz.

Moncayoko Ur Mankomunitateak uraren ziklo integrala (goikoa eta behekoa) kudeatzen du honako udal hauetan: Monteagudo, Ablitas, Corella, Tulebras, Barillas, Murchante, Ribaforada eta Buñuel.

La Dehesako urtegitik (Tarazonako udal barrutian) hornitzen da, Magallongo erreteneko ureztaketa-gaindikinetatik eta Queiles ibailaren Los Fayos aldeko hartuneetatik heldu diren emariekin. Urtegiaren ondoan eraikitako EUTE baten bidez tratatzen dute ura, eta handik banatzen dute Mankomunitatean sartutako herrietako biltegi erregulatuazaleetarako, salbu eta Corellako kasuan, zeren eta bere udalerrian (Ombatillo) kokatutako osin batzuetatik hornitzen baita zuzenean, La Dehesako EUTEtik datorren hornidura-hoditeria egoera txarrean baitago.

Hornidurarako eskema honekin, esan daiteke egungo goi hornidurarako instalazioak nahikoak direla epe labur-ertainean eta, oro har, egoera

onean daudela, nahiz eta jarduketa jakinen bat egin behar den.

Mankomunitate honen funtsezko arazoak bi dira: La Dehesa urtegiaren biltegitatik uraren kalitatearen ahultasuna, eta baliagarri duen emariaren kontzesioak ez duela bermatzen epe ertain-luzean etorkizunerako hornidura-azterlanetan zenbatetsitako emariak.

Gainera, Buñuelek eta Ribaforadak beren industrialdeetarako hornidura osatzen dute Ubide Inperialtik hartutako urarekin.

Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Ur Mankomunitateak goi hornidura kudeatzen du soilik, eta hori gauzatzen du, funtsean Las Estanquillas urtegitik ura hartuz eta hura berriki eraikitako EUTE batean tratatuz; gero handik herri bakoitzeko biltegi erregulatuazaleetara banatzen da, eta Baños de Fiteroraino ere iristen da.

Goi hornidurarako instalazioak nahikoak dira epe labur-ertainean eta, oro har, egoera onean daude, nahiz eta haietan jarduketa jakinen bat egin behar den.

Cortes herria modu independentean hornitzen da, Lodosako Ubidetik heldu den ur ponpatuarekin. Ur hori gero ondoko baltsa batean biltzen da; bertan EUTE bat badago, non ura tratatu eta erabiltzaileei banatzen zaien.

Epe labur-ertainean nahikoak izanen diren goi hornidurarako instalazioak dauzka. Herri honen berriazko arazoa da jatorrizko ur gordinaren kalitate txarra eta biltegitatzeko baltsaren egungo egoera izugarri txarra, zeinak are txarragoa egiten baitu uraren kalitatea.

Arguedas eta Valtierak goi hornidurarako sistema komuna daukate, elkar hartuta kudeatzen dutena; uraren behe hornidura, berriz, bakoitzak bere aldetik egiten du.

El Ferial urtegitik hartzen dute ura, eta Valtierako udalerrian dagoen EUTE bateraino eramaten dute. Bertan tratatzen dute ura eta biltegi erregulatuazaleetara banatzen da.

Goi hornidurarako instalazioak nahikoak dira epe labur-ertainean eta, oro har, egoera onean daude, nahiz eta haietan jarduketa jakinen bat egin behar den.

Cadreita modu independentean hornitzen da, Valcardera ENSko ureztaketa-saretik heldu den urarekin (Moranteko Baltsatik heldu da). Herriko biltegi erregulatuazalearen ondoan EUTE bat dauka, kontsumituko den uraren kalitatea bermatzen duena.

Herri horren arazoa da herritarrentzako hornidura ureztaketa-sarearen menpe dagoela eta hura ENSaren jabetzakoa dela; horrenbestez, sozietate horren kontserbazio- eta hornidura-baldintzen menpe dago, eta horrenbestez bermeak falta dira.

Izan ere, plan honetan presa aitortukotzat jotzen diren obren artean dago Moranteko Baltsatik hoditeria independente bat egitea, zeina etorkizuneari bateragarria izanen baita Mairagako Mankomunitateak Nafarroako Ubideetik hartutako urarekin eginen duen hornikuntzarako aurreikusita dagoen irtenbidearekin.

PLAN ZUZENTZAILEAK ETORKIZUNERAKO AURREIKUSI DUEN EGOERA

Plan zuzentzaileak aurreikusten du eremu osoa Nafarroako Ubideetik (2. fasea) hornitzea.

Konponbidea zehatz definitu gabe badago ere, zeren eta herriek etorkizuneari eska ditzaketen emariaren menpe baitago neurri handi batean, eta emari horiek goi hoditerien gaitasun hidraulikoetan izanen duten eraginaren menpe –gehienak eraiki berriak dira–, esan daiteke honako hau dela irtenbidearen oinarritzko eskema:

- Moncayoko Ur Mankomunitatearen, Tuterako Ur Batzarraren eta Cortesen hornidura-sistemak sistema bakarrean biltzea, Nafarroako Ubideetik, Tuterako inguruetan, hartutako urarekin. Sistema horretan, Cascante herria sartuko litzateke eta Corella (gaur egun, Moncayoko Ur Mankomunitatean dago) desagertuko litzateke.

- Nafarroako Ubidearen hartunea egitea Las Estanquillas inguruetan, eta Corella Cintruénigo eta Fiterorekin batera hornitzea.

- Nafarroako Ubideetik hura hartzea Valtierra inguruetan, eta Arguedas eta Valtierrarako egun dagoen baterako hornidura-sistemari eustea.

- Cadreita Mairagako-Erdialdeko Mankomunitatean sartzeari, eta etorkizuneko hoditeria Alesbese-rainoko luzatzea, Nafarroako Ubideetik heldutako urarekin, Tafallan (La Pedrera) dagoen hartunean.

Zein egunetan eman zen azterlanak egiteko agindua? Noizko edukiko ditugu azterlanak? Zein izanen da kalitatezko uraren beharrianak asetzeko erantzunik onena?

Osasun Publikoaren Institututik jakinarazi digute ezen, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak egindako informazio eskari baten kariatara, gai horri buruzko informazioa igorri zela Nafarroako Parlamentura. Informazio-eskari hartan, “informazioa eskatu zen Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Nafarroako Erriberako herri guztietako gizakientzako ur horniduraren kalitateari buruz egindako txosten guztiei buruz” (9-15/PEI-00197) eta NOPLOIK (Osasun Departamentua) azken bost urteetan Erriberako herri guztien ur horniduraren kalitateari buruz egindako txostenen kopia, horren barne direla sortu diren alerta-egoerak eta Institutuak berak edo/eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren Uren Kalitatearen Sare Integralak epe berean atzemandakoak. Informazio-eskari horri emandako erantzunera jo daiteke Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txostenei dagokienez (9-15/PEI-00197).

Bestalde, Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak, 2015eko urriaren 29an, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Institutuari (INTIA SA) eskatu zion Nafarroako Ubidearen 2. faseari buruzko azterlan bat egin zezan. Zehazki, honako jarduketak egin daitezela, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea deitutakoa dela eta:

1. fasea. Nafarroako Ubideko 2. fasean aurreikusitako eremuetan eta Ebroko Ibaia behe ibilguan dauden ureztatze-hornidurarako sistemen egoera:

1. Queiles ibaia eta haren deribazioak
2. Alhama ibaia eta haren deribazioak
3. Valeko urtegia
4. Tausteko Ubidea
5. Aragoiko Ubide Inperiala
6. Lodosako Ubidea
7. Nafarroako Erretera
8. Ferial urtegia
9. Ebro eta Aragoi ibaietatik heldu diren beste goragune batzuk

Hornitzen diren uren zuzkidura errealak eta haien urtaro-aldaketak aztertuko dira, bai eta erantsita dituzten azpiegituren ezaugarriak eta egoera ere.

2. fasea. Nafarroako Ubidearen 2. fasearen jarduketa-esparruan kokatutako ureztatzaileen erkidegoen egoera. Lan esparrua honakoa izanen da: batetik, 2. fase horretarako Nafarroako Ubidearen eta haren eremu ureztagarrien eraldaketaren udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektorialean finkatutakoa –plan hori 1999ko ekainaren 7ko Erabakiaz onetsi zuen Nafarroako Gobernuak– eta, bestetik, Tausteko Ubideetik eta Ubide Inperialetik hornitutakoak.

Erkidegoetako bakoitzerako honako alderdi hauek definituko dira:

- Zuzkidura hidriko teorikoa, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak uren aprobetxamendurako baimendutako emakidan ezarritakoa.

- Hornidura hidrikoaren iturriaren ezaugarriak.

- Erkidegoaren azalera.

- Titularrak: kopurua, egitura demografikoa, titular bakoitzeko azalera-tarteak.

- Ureztatzaileei erkidegoak fakturatutako kontzeptuak.

- Laboreen egitura (orria).

- Uraren kontsumo errealak eta defiziten zenbatespena.

- Ponpaketen energia-kontsumoa, kasua bada.

- Administrazioek aurrera eramandako jarduketak.

Lehorreko eremuetarako, ureztalur bihur daitezkeen azalerak finkatzea, beren titularrekin, egitura demografikoarekin eta titular bakoitzeko azalera-tarteekin.

Bigarren fasean, erkidego bakoitzari inkestak eginen zaizkio, honako hauek ezagutze aldera: benetako eskariak, bete gabeko beharizanak eta laboreak nekazaritza-industriara bideratzeari buruzko perspektibak. Lehorreko eremuen kasuan,

inkestak kooperatiben eta udalen bitartez eginen dira.

3. fasea. Ondoren, balizko hornidura-iturrien azterketa bat eginen da, atzemandako eskari eta defizitak asetzeko, haien ezaugarri teknikoak, inbertsio kostuak eta ustiaketa/mantentze kostuak zehaztuta. Protokolo bat ezarriko da ureztatzaileei dauden aukera desberdinak eta haien kostuak jakitera emateko.

4. fasea. Ureztatzaileen erkidegoek hornidura hidrikorako alternatibaren baten alde egiten badute, jarduketan aurreikuspen bat eginen da, dago-kion finantzaketarekin, lege-esparru indardunarekin bat:

- 1/2002 Foru Legea, martxoaren 7koa, nekazaritza azpiegiturei buruzkoa.

- Nafarroaren eta Estatuaren arteko hartzarmena, Nafarroako Ubidea eraikitzekoa.

- Ebro Arroaren Plan Hidrologikoa.

- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Lurzoruaren Legearen Testu Bategina onesten duena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, enpresak sortzean egon ohi diren oztopo burokratiko eta administratiboak murrizteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ainhoa Unzu Gárate andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enpresak sortzean egon ohi diren oztopo burokratiko eta administratiboak murrizteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Unzu Gárate andreak 9-15/PES-00127 galdera egin du. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren informazioa:

2008az gero, ekonomiak krisi ekonomiko larria bizi izan du, langabezia-tasa handiarekin. Horri dagokionez, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren hobekuntza handi bat etor liteke enpresentzako kostu ez-emankorrak murriztu edo kentzetik; besteak beste, justifikatu gabeko gehiegizko burokraziak eragindakoak.

Egiazki, enpresen sorrerak balio handia du edozein lurralderentzat; hori dela eta, administrazio publikoen betebeharra da baliorik ez dakarten izapide eta oztopoak gutxitzea. Krisiak are agerikoago egin zuen beharizan hori, eta Administrazio Publikoaren maila guztietatik lasterketa moduko bat hasi da ekintzailetza sinpletu eta bultzatzeko. Bitarteko telematikoak sartzearekin, esate baterako, nabarmen gutxitu dira enpresa bat irekitzeko egin beharreko urratsak eta pasa beharreko egunak.

Hain zuzen ere aurten Doing Business subnacional para España izenburua daraman lehen txostena argitaratu da, nazioko hirigune nagusiei buruzkoa, non zenbait adierazleren bitartez neuritzen baita lurralde batean negozioak egiteko erraztasuna; erregio bakoitzaren ahulgune eta indarguneak identifikatzeko.

Nafarroari buruzko balorazioa oro har positiboa bada ere, txostenak paperera eramaten ditu enpresa bat irekitzeko prozeduran dauzkagun ahultasunak. Hori dela eta, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren barruan lantalde bat eratu da, prozesu horretan hobekuntzak egiteari ekiteko.

Lantalde honen hasierako planteamenduan, bi jarduketa-ildo identifikatu dira. Lehenengoa, jarduera kaltegabe bat garatzen duen enpresa bat irekitzeari buruzkoa da. Azterketa eta gainerako herriekiko alderaketa egin ondoren, ondorioztatu da ezen nabarmen hobetu ahalko dela erregioaren posizio erlatiboa izapidetzerako sistema integral baten alde egiten bada, sozietate batzuk modu telematikoan eratu eta abian jartzeko bidea emanen duena, eta kostuak arrazionalago egiten badira. Horrekin bat, aurrera dezakegu hurbil gaudela Nafarroa enpresen sorrerako izapide elektronikoen sistemari (CIRCE) egokitzeari konponbidea ematek. Sistema hori erabilgarri dago Ekintzaileari Laguntza emateko Guneetan.

Bigarren jarduketa-ildoak, Nafarroaren profil industrial nabarmena dela-eta garrantzitsuagoa dena, jarduera sailkatu bat duen enpresa bat zabaltzeko ibilbidea arrazionalizatzerako bideratuta dago. Jarduketa honek munta handiko azterketa exijitzen du, eta horretarako prozesuan esku hartzen duten eragile guztien ikuspuntua jaso behar da, eta horretarako, izan ere, jada alde zuzeneko analisi bat badago, eta datorren urtean zehar ondorioetara iristea espero da.

Halaber, Nafarroako Gobernuak aurrera jarraitzen du 2013ko azaroaren 20an onetsitako Administrazioa Errazteko Plan Orokorrearekin. Haren xede nagusia da prozedurak eta egiturak erraztea, eta zenbait helburu biltzen ditu zama administratiboak eta izapidetze-denborak gutxitzeari begira; horiek, zalantzarik gabe, asebetetze handiagoa ekarriko diete herritarrei Administrazioarekiko harremanari dagokionean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Tokiko Azpiegituren Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Carmen Segura Moreno andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tokiko Azpiegituren Planari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Carmen Segura Moreno andreak galdera egin du oraingo Gobernuak jabetza hartu zuenetik Toki Inbertsioen Planean egindako inbertsioei eta egindako ordainketei buruz (9-15-/PES-00128). Hauxe da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariaren erantzuna:

Gobernu berriak jabetza hartu zuenetik, honako espediente hauek ebatzi dira:

1. eranskinetik ebatzi diren proiektuak

9 espedienteren gehieneko ekarpen ekonomikoa onetsi eta finkatu da; horrek 110.755,83 euroko aurrekontu-gastua dakar 2015eko ekitaldirako eta 1.948.427,60 eurokoa, berriz, 2016ko ekitaldirako. (Ikus 1. eranskina).

Larrialdiko eta urgentzia nabarmeneko deklarazioak

13 inbertsioren larrialdia izapidetu eta onetsi da; gaur egun guztiz ordainduta daude horiek, eta 97.421,68 euro egiten dute.

Halaber, urgentzia nabarmenektzat jota sartu da eta finkatu da inbertsio baten gastu-konpromisoa, zeinaren ordainketa gaur egun izapidetzen ari baita; 51.174,75 euro egiten du (ikus 2. eranskina).

Gainera urgentzia nabarmeneko gisa 2009-2012 urteetako Toki Inbertsioen Planean guztira 35 inbertsio sartu dira, guztira 4.388.387,89 euroko ekarpena egiten dutenak. 35 inbertsio horietatik 31rentzat gehieneko ekarpen ekonomikoa ematea izapidetzen ari gara une honetan, bai eta dago-kion ordainketa ere, 2015eko aurrekontuaren kargura. Guztira 3.666.684,23 euro dira (ikus 3. eranskina).

Sartutako inbertsioak direla-eta egindako ordainketak

64 espedienteri dagozkion ordainketak egin dira 2.307.559,26 eurokoak (ikus 4. eranskina), eta une hauetan 25 espedienteri dagozkionak izapidetzen ari dira, eta 2.145.022,26 euro egiten dute (ikus 5. eranskina).

Ondorioa

Hartara, bada, Gobernuak jabetza hartu duenetik ekitaldi honen kargura egindako gastu-aurreikuspena 9,59 milioi eurokoa da, (ikus 6. eranskina); horiei aurrez ordaindutako beste 3,21 milioi euroko kopurua gehituta, 2015eko aurrekontuaren aurrekontu indardunaren kontura guztira 12,80 milioiko gastu-aurreikuspena dago; ez da iristen, beraz, aurtengo eskuragarri zegoen 14.06 milioi euroko kopurura.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

1. ERANSKINA (1. ERANSKINETIK EBATZI DIREN PROIEKTUAK)

Entitatea	Inbertsioa	Ekarpena	
		2015	2016
VALTIERRAKO Udala	Sareak berritzea honako hauetan: Valle del Roncal kalea, Ireneo, Placeta Ríos, El Puerto eta Paseo de la Concordia kalea (partziala)	54.480,85	81.721,27
VALTIERRAKO Udala	Honakoak zolaberritzea: Valle del Roncal kalea, Ireneo, Placeta Ríos eta El Puerto.	56.274,98	84.412,45
MAIRAGAKO-ERDIALDEKO MANKOMUNITATEA	AZKOIEN Sareak berritzea: Río eta Bajada Escuelas kaleak		306.994,70
MAIRAGAKO-ERDIALDEKO MANKOMUNITATEA	AZKOIEN Goi hoditeriako hiri tartea berritzea (bulkatzea)		30.915,62
MAIRAGAKO-ERDIALDEKO MANKOMUNITATEA	BENEGORRI. Hornidura- eta saneamendu-sareak berritzea		65.328,54
MAIRAGAKO-ERDIALDEKO MANKOMUNITATEA	GARINOAIN. Hornidura- eta saneamendu-sareak		105.043,79
IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA	Txulapaingo horniduraren 5. fasea (Osinaga eta Aristregi)		484.745,76
AZKOIENGO UDALA	Zolaberritzea: Río eta Bajada Escuelas kaleak		495.376,66
ITURENGO UDALA	250 m ³ ko biltegi erregulatzaile berria eta hartara iristeko bidea		272.782,29
ITURENGO UDALA	Amezitia eta Arrutola auzoetako bideak		21.106,52
		110.755,83	1.948.427,60

2. ERANSKINA (LARRIALDIA ETA URGENTZIA AITORPENAK)

Entitatea	Inbertsioa	Toki inbertsioen planean sartzea	Ekarpena	Ordaindutakoa
ARANOKO UDALA	Larrialdiko lanak Aranoko auzobidean eta Sagargazite eta Santinborda baserrietako bidea	Larrialdia	2.978,68	2.978,68
LESAKAKO UDALA	Lopenekoborda baserriko bideko luizia	Larrialdia	9.797,43	9.797,43
LEITZAKO UDALA	Erasote auzoko bidea. Larrialdia.	Larrialdia	7.114,80	7.114,80
ATEZKO UDALA	EGUARATS. Hilerria zaharberritzea	Larrialdia	6.427,35	6.427,35
ABERINGO UDALA	San Juan kaleko horma berreraikitzea	Larrialdia	16.019,85	16.019,85
BAZTANGO UDALA	Urritzateko jarduketak	Larrialdia	2.469,01	2.469,01
AZKONAKO KONTZEJUA	Eguzki kaleko luiziak 2015eko 1. hiruhilekoko euriteak	Larrialdia	11.313,38	11.313,38
Kontseiluak adierazitakoaren arabera, litekeena dela ekarpen horien baliogabetzeak edo atxikitzeak “*ez izatea bateragarriak konstituzio-esparruak eta Nafarroako tokiko araubidearenak toki entitateek Foru Komunitateko tributuetan parte hartzeko funtsari aitortzen dioten funtsezko eginkizunarekin, batez ere toki ogasunei halako erantzukizun ekonomiko subsidiarioa eskualdatzen baitiote toki entitate horietan ordezkartza-karguak dituztenen banakakoak izan daitezkeen jarduketengatik, horixe egiten baitu foru legeak berak baliogabetzearen edo atxikipenaren zenbatekoa zehazterakoan*”. Halaber, Administrazio-zuzenbide Zehatzailearen ikuspuntutik, Nafarroako Kontseiluak dio ezen, konstituzio-esparru indardunetan, balizko arau-hauste horien ondorioak ez liratekeela bideratu behar tokiko ogasunen nahikotasuna bermatzekoak diren funtsak kenduz. Haren irizpenak azpimarratzen du bide horretatik ekarpen ekonomikoak baliogabetze edo atxikitzeak eragina duela zenbait printzipiotan: segurtasun juridikoa, tipizitatea, erantzukizuna, ustezko erugabetasuna, defentsarako bermeak eta irmoak ez diren zehapenen eraginkortasun eza, bai eta proportzionaltasuna ere. Azkenik, irizpenak baieztatzen duenez, zalantzan jartzen den araupetze horrek legezkotasunaren halako kontrol-sistema bat ezartzen du, Foru Administrazioak egiten lukeena, toki araubideari buruzko legedian jasotako prozeduretatik kanpo. Bada, sistema horrek, bere orokortasunean ere, berarekin dakar toki entitateen autonomia murriztea eta, horrenbestez, Konstituzioaren 140. artikulua aurkakoa izan daiteke.

B) Iruñeko Udalarari (2015eko uztailaren 6a), Oteitzako Udalarari (2015eko uztailaren 14a) eta Berriozarko Udalarari (2015eko irailaren 1a) irekitako informazio-espedienteak.

Hiru kasu horietan erantzun zen 24/2003 Foru Legeko 8. artikuluko hirugarren idatz-zatian jasotako lege-babesa aldarrikatuz, Euskal Autonomia Erkidegotik heldutako agintarien bisitak direla eta. “*Salbuespen gisa, aipatu banderekin batera, baina ez bakarrik, beste estatu, autonomia erkidego edo toki entitate batzuetako banderak jar litezke, estatu, autonomia erkidego edo toki entitate harenanako begirunezko ekitaldi batean, lurralde anfitrioiako agintari eskudunak ofizialki gonbidatuak direnean, eta bisita ofizialetan, edo toki entitateen arteko adiskidantza-ospakizunetan, betiere ospakizunak dirauen bitartean*”.

Aipatutako hiru kasuetan irekitako informazio-espedienteek 39/1981 Legeko 6.1 artikulua betetzea egiaztatzen duten argazkiak jasotzen dituzte –lege horren bidez Espainiako banderaren

eta beste bandera eta ikur batzuen erabilera arautzen da, eta haietan agertzen da Espainiako bandera “toki nabarmen, agerikoan eta ohorezkoan dagoela”. Arau horrek oinarri gisa balio izan zuen Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak eskari bat atzera botatzeko, zeinaren bitartez eskatzen baitzen Iruñeko udaletxeko fatxadan 2015eko uztailaren 6an jarritako ikurrina bat kaute-lazko neurri moduan erretiratzeko, 24/2013 Foru Legearen 8. artikuluko hirugarren idatz-zatian bertan xedatuaren babesean.

Behin erabaki judizial hori emanda, 2015eko uztailaren 6an, Iruñeko Udalak ofizialki gonbidatutako Euskal Autonomia Erkidegoko agintari batzuk bazeudela egiaztatuta, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak ez zuen bestelako jarduketarik egin, ez informatiborik, ez eta zehatzailerik ere. Egin zuen bakarra izan zen Iruñeko Udal horri Iruñeko udaletxearen argazki bat igortzea, Kudeaketa eta Laguntza Juridikorako zuzendariaren 2015eko uztailaren 16ko ofizio baten bitartez, “Toki Administrazioiko zuzendari nagusiaren jarraibideei jarraituz, dagokion administrazio-espeditenteari gehitu dakion”; udal espeditenteari, noski.

Kasu horretan, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak geroko jarduketa informatiborik edo zehatzailerik ez egote hori bat zetorren Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 137.2. artikuluan ezarritakoarekin: “Zigor-ebazpen judizial irmoek frogatutzat jotako egitateak frogatutzat jo behar dituzte herri-administrazioek berek hezurramitzen dituzten zehapen-prozeduretan”.

Antzeko arrazoiengatik, ez da geroko jarduketarik izan Oteitzan eta Berriozarren irekitako espeditente informatiboetan, ofizialki gonbidatutako Euskal Autonomia Erkidegoko agintarien presentzia egiaztatu ondoren.

Hirugarrena. Zure Gobernuak jabetza hartu zuenez geroztik, diru-kantitatearen bat atxiki al da udalen batengandik, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen azaroaren 12ko 2/2014 Foru Legeko 7.e.1 artikulua urratzeagatik?

Ez egungo gobernuak jabetza hartu aurretik, ez gero, ez da legez inongo diru-kopururik atxiki 12/2014 Foru Legearen 7.e.1 artikulua urratzeagatik.

Kontzeptu horrengatik egindako atxikipenak aurreko Gobernuak egin zituen, eta lege euskarri-rik gabe.

Aipatutako 7. artikulua beraren 5. idatz-zatian honakoa xedatzen da, “*Horretarako, Nafarroako Gobernuak baliogabetze edo atxikitzeko prozedura irekiko du, eta Udalari lege-urraketa jakinaraziko zaio; betiere, alegazioak egiteko epe bat eman beharko zaio ukitutako entitateari. Prozedura hori amaituta, toki entitateak ez baditu itzultzen eskatutako konpentsazio guztiak, Nafarroako Gobernuak funts orokorraren kargura konpentsatuko du.*” Aurreko gobernuak ez zuen ez izapidetu, ez eta, are gutxiago, ebatzi ere inongo zehapen-prozedurarik arau horretan xedatuaren arabera, erabakitze aldera udal horiei erreklamaturako kopuruak itzultzea bidezkoa zen ala ez. Haiek legez baliogabetzera mugatu zen.

Toki Administrazioiko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 209/2015 Ebazpeneak berak, ordain horiek aipatutako 8 udalei atxiki zitzaizkienez, zalantzarik gabe aitortzen du 12/2014 Foru Legearen 7.e.1. artikuluko zehapen-espeditentetik ez dagoela. Horri buruz dioen bakarra da ezen, emandako iritziaren arabera, “bidezkoa dela baliogabetze espeditentea hastea,” hartara agerian jarritz halako espeditenteak hasi ere gabe zeudela egiteko bidean ordain horiek atxiki ziren unean.

Orduko Toki Administrazioiko zuzendari nagusiaren ebazpenean “a priori” emandako iritzi hori gorabehera, aipatutako udalei ez zitzaizkien inongo zehapen espeditentetik ireki ebazpen hori eman ondoren ere zuzendari horrek karguan iraun zuen aldian.

Ukitutako udalei jakinarazitako jarduketa administratibo bakarra, zeina bideratuta baitzegoen ez zuzenean zehapen espeditente horiek hastera, baikik eta argitzera haiek hastea bidezkoa zen ala ez, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiko Kudeaketa eta Lankidetzaren Juridikorako Zerbitzuko zuzendariaren ofizioa da, 2015eko irailaren 23koa, goian transkribatu duguna, eta hartatik heldu dira arestian aipatutako jarduketa administratiboak.

Laugarrena. Gobernuak ba al du asmorik Nafarroako Sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legeari dagokionez, Funtsaren Legeko 7.e.1 artikulua bete eta betearazteko?

Nafarroako Gobernuak legedi indarduna bete egiten du eta beteko du.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, udalek Nafarroako Sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra ez betetzea dela-eta 2015eko uztailean arte irekitako espedientei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, udalek Nafarroako Sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra ez betetzea dela-eta 2015eko uztailean arte irekitako espedientei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 13ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari David Anaut Peña jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Udalek Nafarroako Sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra ez betetzea dela-eta 2015eko uztailean arte irekitako espedientei buruz (9-15-/PES-00132). Hauxe da Landa Gara-

peneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legeak indarra hartu zuenetik 2015eko uztailean arte, zenbat espediente ireki dituzte izan diren Nafarroako Gobernu ezberdinek, udalek lege horren Xedapen Iragankor Bakarra ez betetzearen ondorioz?

Bat ere ez.

Tramitatu al dute Nafarroako Gobernu ezberdinek inolako demanda judizialik, kausa hori bera dela-eta, lege horrek indarra hartu zuenetik 2015eko uztailean arte?

Bat ere ez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseak ukitutako herrietako alkateekin izandako bilerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidearen bigarren faseak ukitutako herrietako alkateekin izandako bilerei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 13ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higue-

ras jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ubidean egiteke dauden faseen eraikitze-epeak betetzeari buruz (9-15/PES-00045). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

1.- Bileretako batzuk Gobernuak eskatuta egin ziren; beste batzuk, berriz, udalek edo erkidegoek eskatuta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko abenduaren 4an.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

2. Bilerak

data	antolakuntza	gaia
2015/09/11	Murillo el Frutoko Udala	Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena
2015/09/25	Leringo alkatea + plataforma	Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena
2015/10/09	Oteitzako Udala	Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena
2015/10/13	Azkoiengo Udala	Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena
2015/10/21	Andosillako Udala	Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena
2015/10/23	Carcarko ureztatzailen erkidegoa	Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena
2015/10/26	Sesmarko Udala	"Monte de Sesma" eremu ureztagarria eta Nafarroako Ubidearen 1. fasearen egoera
2015/10/27	Mendaviako Udala	Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena
2015/10/29	Artaxoako Udala	Artaxoako herri-lurretan ureztaketa jartzea
2015/11/20	Erriberriko Udala	Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena

3. Egiteko dauden bilerak

data	antolakuntza	gaia
	Arroizko Udala	Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena
	Larragako Udala	Nafarroako Ubidearen lehen faseko eremu ureztagarriaren 1. fasearen zabalpena
2015/12/10	Mendigorriko Udala	Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena

Galdera, Modernaren jardueraren gaineko ebaluazio-txostenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Modernaren jardueraren gaineko ebaluazio-txostenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 13ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak 9-15/PES-00134 galdera egin du. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren informazioa:

“Moderna Fundazioa: Aurkezpena eta Jarduketak 2012-2014” txostena erantsi dugu, non biltzen baitira Fundazioa lanean aritu den urteetan egin dituen jarduketaren multzoa.

Kontuan hartu beharra dago Moderna Planak 20 urteko horizontea zuela eta, horrenbestez, lehenengo laurdena (% 25) osatu zuela. Lehengo laurden horretan, gainera, planaren onespenez eta fundazioa abian jartzeak ia denboraren erdia hartu zuen (2012ko martxoan hasi zen lantaldea).

Moderna Plana dela-eta helarazi diguten ebaluazio horri buruz honako gogoeta hauek egin behar ditugu:

Lehena. Gobernuaren behar adinako inplikazioa falta izan da plana erregio-estrategia moduan bultzatzeko, horretarako lehenespenez argi bat behar baitzen, maila gorenekoa, sektore publikoaren jarduketak lerrokatzeko.

Bigarrena. Jarduketa-eremua zabalegia da, eta gutxi koordinatuta dago bestelako jarduketa publi-

ko zein pribatuekin. Ikusi dugu jarduketa batzuk beste departamentu edo enpresa publiko batzuek lideratu beharko zituztela. Halaber, ikuspegia falta da garatu edo bultzatu beharreko enpresa-arloetan.

Hirugarrena. Fundazioan ez dute behar hainbeste parte hartzen hain irismen zabala duen proiektu batean egoki ordezkaturik ez zeuden bestelako erakunde eta sentiberatasun sozialek.

Garapen Ekonomikorako Departamentuak josten du jarraipena merezi duten alderdi positibo batzuk badaudela. Esate baterako, sektore publiko eta pribatuaren jarduketak etorkizuneko lehentasunezko esparruetarantz orientatuko duen estrategia ekonomiko erregional batean lan egitea (Europak bultzatutako espezializazio adimenduneko estrategiekin bat); enpresen lankidetzaren lehenestea clusterren formula erabiliz; eta enpresen tamaina handitzeko estrategia bat bultzatzea, horixe behar baitu gure ehundura produktiboak munduan lehiakorra izateko.

Hori dela eta, Garapen Ekonomikorako Departamentua honako arlo hauetan ari da lanean:

- 1.- Lantaldea Sodenan integratzea.
- 2.- Prozesuan alde pribatuak parte hartzeko tresna bat diseinatzea.
- 3.- Espezializazio adimendunaren estrategia berraztertzea 2016ko lehen seihilekoan.
- 4.- Cluster politika diseinatu eta hura gero ezartzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, energia eolikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, energia eolikoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 20ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko David Anaut Peña jaunak parlamentu-galdera egin du (9-15/PES-00135). Hauxe Garapen Ekonomikoko kontseilariak informatzeko duena:

Nafarroako 2020ra arteko III. Energia Planak, Nafarroako Gobernuak 2011ko maiatzean onetsiak, helburu orokor gisa du energia-ekoizpen, -eraldaketa eta -kontsumoak Nafarroan iraunkortasunari egiten dioten ekarpena ahal den handiena izan dadin, alderdi sozial, ekonomiko eta ingurumenekoetan. Zehazki, energia berriztagarrien arloko helburu kualitatiboa da energia-ekoizpen berriztagarria bultzatzea lehiakorra izan den iturri guztietan, halako moduz non tokiko energia-iturri berriztagarri gehiagok zeresan garrantzitsua izan den erregioeko energia-mixean.

Helburu kualitatibo horiek zenbait helburu kuantitatibotan zehazten dira; besteak beste, honako hauek dira energia berriztagarriei dagokiak:

– Kontsumitzen den elektrizitatea baino ehuneko 10 gehiago Energia berriztagarrien bidez sortzea, alde handiz gaindituz PANER-Energia Berriztagarrien 2011-2020 aldirako Ekintza Plan Nazionalan finkatzen den ehuneko 40ko autohornikuntzaren helburua, eta Nafarroak arlo honetan munduko erreferente bezala duen nazioarteko irudia indartuz.

– Europar Batasunak 2020. urterako ezarritako energia-helburuak gainditzea:

- energiaren azken kontsumo gordinean energia berriztagarriek %32 egin dezaten lortuta (EBren helburua %20 da).

Energia eolikoaren arloan, Energia Planeko 5. atalean aipatzen da 2009an instalatuta zegoen

potentzia eolikoak 947,6 MWkoa zela eta 2020rako aurreikuspen edo helburua 1.600 MWkoa zela.

Aipatutako Energia Planak jasotzen du Nafarroan jarritako lehenengo haize-sorgailuak 1994ko amaierakoak direla eta 2009an instalatutako potentzia eolikoak 947,6 MWkoa zela (ia gaur egun bezalaxe, gaur 1.001 MWkoa baita), halako moduz non instalazio horien batez besteko antzinatasuna 2015ean 10 urte ingurukoa baita.

1998ra arte abian jarritako haize-sorgailuak, aprobetxamendu eoliko apalekotzat hartutakoak eta 650 kW baino gutxiagoko potentzia unitarioak dituztenak, zaharkitze teknologikoaren mugamugan daude (pausuko makina asinkronikoak, abiadura finkokoak, potentzia erregulatzeko inongo gaitasunik ez dutenak), eta haien prestazioak egungo errekerimenduetatik urrun daudela.

Hala eta guztiz ere, birpotentziatzeko aukera zaila izan daiteke, zeren eta oraindik ere parke gazteak baitira (gehienak 90eko hamarkadaren amaieran jarri ziren martxan), jada amortizatuta daudenak edo amortizatzeke pronto daudenak, mantentze-kostu txikiak eta errentagarritasun handiak dituztenak.

2011-2020 urteetarako Energia Berriztagarrien Ekintza Plan Nazionalak erregelamendu-izaerako berariazko neurri gisa aurreikusten du tratamendu administratibo berezitua ematea parke eolikoak birpotentziatzeko –haien haize-sorgailuen parte bat ala guztiak ordeztearen bidez– behar diren kudeaketa administratiboak errazte aldera. Nabarmenezkoa da ezen gaur den egunean ez direla baldintza horiek garatu.

2020 horizonteko Nafarroako III. Energia Planak berak jasotzen zuenez, 2011-2015 epearen amaieran azterketa eta gogoeta sakona egingen da Nafarroako energia-egoerari buruz. Zehazki, Nafarroako Gobernuaren 2015-2019 legegintzaldirako programa-akordioak, eredu energetikoaren arloan, jasotzen du Nafarroarako Energia Plana berrikusi beharra dagoela, 2025eko horizontearekin, eta bertan energia berriztagarrien eta energiaren erabilera arrazionalaren aldeko apustua egingen dela.

Plan horren definiziorako beharrezkoa den gogoeta-prozesuaren testuinguruan, hainbat alderdi landuko dira; esate baterako Nafarroan energia-iturri desberdinetatik dauden balizko baliabideen inbentarioa egitea (eolikoak, hidraulikoak, biomasa, berriztagarriak).

Azkenik, gogoratu beharra dago sektore elektrikoari buruzko araudiak enpresa-ekimen librea aitortzen duela elektrizitatea sortzeari begira:

“24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa.

2. artikulua. Jardueren araubidea.

1. Energia elektrikoaren hornidurarako lege honetan araututako jarduerak egiteko enpresa-ekimen librea dagoela aitortzen da, ezertan kendu gabe monopolio naturalaren izaera daukaten jardueretarako ezar daitezkeen mugak.”

Ekimenerako askatasun hori, halaber, aurreko araudian jasota zegoen:

“54/1997 Legea, azaroaren 27koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa.

2. artikulua. Jardueren araubidea.

1. Energia elektrikoaren hornidurarako lege honetan araututako jarduerak egiteko enpresa-ekimen librea dagoela aitortzen da.”

Horrenbestez, garrantzitsua da esatea ezen Nafarroako Gobernuak, bere eskumenez baliatuz, baliabide eolikoaren aprobetxamenduaren inguruko jarduketak egin baditzake ere, elektrizitatea sortzea ekimen libreko jarduera bat dela, zeina aurrera eraman baitaiteke, nola ez, baldintza jakin batzuekin; besteak beste, ingurumen araudia, lurraldearen antolamenduko araudia eta sortutako energia produkzio guneetatik kontsumo guneetara eraman eta banatzeko sare elektrikoek daukaten gaitasuna bera. Azkenik, kontuan hartu beharko litzateke ordainin araubideari dagokiona, azken hori Estatuaren Administrazio Orokorraren eskumena baita; izan ere, sektore elektrikoaren azken erreformak proiektu elektriko berrien garapena gerarazi du.

Une hauetan zenbait eskabide izapidetzen ari dira. Nabarmenezkoa da horietako askok urteak daramatzatela izapidetzen:

Iruñean, 2015eko abenduaren 17an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Sustatzailea	Proiektua	Kokapena
Acciona Energía SA.	Vedadillo III	Faltzes
Gamesa Energía SAU.	El Valle eta Valdeñarro (baimenduta daude baina aldaketa bat izapidetzen ari da)	Cortes
Gamesa Energía SAU.	G10X Navarra	Andosilla, San Adrián
M. Torres Desarrollos Energéticos SL	La Lobera	Artaxoa, Tafalla
Eólica Navarra SLU.	2011-2016 Lurralde Plan Eoliko Estrategikoa	Cabanillas, Ablitas, Cascante, Fustiñana, Zarrakaztelu
Renovables de la Ribera SL.	Cavar-1, Cavar-2, Cavar-3, Cavar-4, Cavar-5	Arguedas, Cadreita, Castejón, Tuter, Valtierra
Gestamp Eólica SL.	Sierra de Peña	Xabier, Zangoza
Desarrollos Energéticos de Navarra SA.	Barasoain eta Tirapu	Barasoain, Añorbe, Oloritz, Tirapu, Untzue, Artaxoa
Agrowind Navarra 2013 SL.	Plan Eólico de Navarra	Lerin, Larraga, Oteitza, Faltzes, Martzilla

Galdera, Nafarroaren Eguna ospatzeko Nafarroako Gobernuak prestatu duen programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroaren Eguna ospatzeko Nafarroako Gobernuak prestatu duen programari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 20ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatzizko galdera egin du "Nafarroako Foru Komunitatea" jota lehiaketari buruz (9-15/PES-00136). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Azaroaren 21ean, "Nafarroako Foru Komunitatea Saria" jota lehiaketaren IX. edizioa egin zen Tuterako Gaztambide antzokian. Nafarroako

Gobernuaren ordezkari, Eskubide Sozialetarako lehendakariorde Miguel Laparra Navarro bertan izan zen.

Udal ekimenei laguntzeko plana desagertu zenetik, lehiaketa antolatzeke babesle pribatu bat badago. Hori gorabehera, eta joan den urtean bezala, Nafarroako Gobernuak 1.000 euroko laguntza eman zion lehiaketari, eta Nafarroako armarrria duen ikur-oihal handi bat laga zion.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Egunaren ekitaldi ofizialak onetsi zituen egunean, jaialdiaren antolatzaileek ez zuten eskatua inongo lankidetzara edo laguntzarik; hori dela eta, Gobernuak erabaki zuen ekitaldia programan ez sartzea. Ondorengo egunetan eskatu zen aipatutako lankidetzara.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak toki entitateei zenbait alorren kudeaketan laguntzeko duen unitate espezializatuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Carmen Segura Moreno andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak toki entitateei zenbait alorren kudeaketan laguntzeko duen unitate espezializatuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 20ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Carmen Segura Moreno andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak toki entitateei zenbait alorren kudeaketan laguntzeko duen unitate espezializatuari buruz (9-15-/PES-00137). Hona Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna:

Zer giza baliabidez eta baliabide ekonomiko hornituko da unitate hori?

Behin unitatearen eginkizunak baloratuta, beharrezkotzat jotzen diren giza baliabideak jarriko dira.

Zuzkidura ekonomikoari dagokionez, berriz, ezin dugu une hauetan zehaztu.

Ezarpenak berarekin ekarriko du Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiak orain arte toki entitateei aholkua emateko izan duen zerbitzua berrantolatzea.

Zeintzuk dira horren helburuak? Zeintzuk izanen dira helburu horien jarraipena egiteko adierazleak?

Helburua da Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen arteko koordinazioa hobetzea, aholkua emateko eta lankidetzarako jarrera batekin; orain arte fiskalizazio zorrotzaren bidetik jardun izan da.

Akordio-programan zehazten den bezala, haren eginkizunak honako hauek izanen dira, bes-

teak beste: erosketak eta erosketak kolektiboak, negoziozko elektrikoa, inbentarioak, langileen kontratazioa, polizia-laguntzaileak eta partaidetza- eta gardentasun-gaien ezarpena eta jarraipena.

Zein izanen da horren funtzionamendua?

Toki Antolamendurako eta Toki Entitateei Laguntzeko Zerbitzuari atxikita lan egingen du, eta zerbitzu horrek zehaztuko du, ahal den modu zorrotzenez, haren jarduteko era, hura eratzea planteatzen duenean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 26an.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Kontseilariak: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Tokiko Administrazioa Berregituratzeko Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Carmen Segura Moreno andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tokiko Administrazioa Berregituratzeko Planari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 20ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari María Carmen Segura andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Tokiko Administrazioa Berregituratzeko Planari buruz (9-15/PES-00138). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Kontseilariak:

Zein da parte-hartze prozesu honen taxuketa?

Nafarroako Toki Administrazioaren erreforma egiteko prozesua, lerro nagusitan, honako hau da:

1. Proposamen gisako oinarrizko dokumentu bat taxutzea (zeinari liburu zuria ere dei baitakioke), non lana garatzeko esparrua finkatuko baita. Agiri horretan, eranskin gisa jasoko dira aurreko legegintzaldietan Parlamentuan eratu diren lantaldeek taxututako ekarpenak. Oinarrizko dokumentu hori Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusia prestatzen ari da, eta hemendik gutxira aurkeztuko zaio Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, dokumentu hori osatzeko edo aldatzeko proposamenak egin ditzaten.

2. Eztabaidan inplikaturako agenteek parte hartzeko prozesuari dagokionez, protagonismo nabarmena izanen dute Nafarroako toki entitateetako ordezkariak. Halaber, aholkulari gisa, pertsona taldeek parte hartuko dute, daukaten kualifikazio profesionalaren arabera antolatuak; horien artean egonen dira udal idazkariak zein bestelako funtzionarioak, unibertsitate-irakasleak eta gai zehaztutako adituak. Azken horien eginkizuna toki ordezkarien eginkizunaren osagarria izanen da, haiek eztabaidarako gaitasuna eduki gabe.

3. Behin gai desberdinei buruzko proposamenak eginda, Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiaren juristek legeen eta bestelako arauen

aurreproiektuak eginen dituzte, haiek aurrea eraman ahal izateko. Nafarroako Gobernuak dokumentu horiei azken taxuak emanen dizkie, eta dokumentuak ukitutako eragileekin kontrastatuko ditu.

4. Lege proiektuak Parlamentuan eztabaidatu eta onetsiko dira.

5. Nafarroako Toki Administrazioaren antolaketa berria abian jarriko da.

Zertan datza aipatu prozesua?

Prozesua datza Toki Administrazioa berrantolatzeko proposamen bat egitean, honako funtsezko hiru gai hauetan zentratuta:

1. Toki entitateen finantzaketa.

2. Toki entitate bakoitzak bete beharreko eskumenak zehaztea eta Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen dituenak eskuordetzeko proposamena.

3. Nafarroarako tokiko planta berri baten proposamena lantzea.

Zehazki parte hartzeko prozesuari dagokionez, aurreratu dezakegu talde dinamizatzaile bat edo batzorde kudeatzaile bat edukiko dituela, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak osatua, eta talde hori ardura-

tuko dela jarduketak zehazteaz. Talde horrek bere buruari behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak emanen dizkio, hura modu zehatzean aurrera eramateko. Batzorde kudeatzaile horrek partaidetza-foroak antolatuko ditu, non Nafarroako toki entitateak ordezkaturik egon behar baitira, xedatzen den moduan.

Zer epe aurreikusi duzue parte-hartze prozesurako eta prozesu osterako?

Prozesuak oro har ez litzateke bi urte baino gehiago luzatu beharko, legegintzaldi honetan onetsi ahal dadin.

Kontuan hartuko al duzue jada egina dagoen tokiko maparen ponentzia?

Lehenengo erantzunean adierazi bezala, aurreko legegintzaldietako lantalde guztiek taxututako materiala prozesurako lan-materiala da, eta oinarrizko dokumentuari eranskin gisa gehituko zaio.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galdearen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 27ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-15/PES-00139 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

2014ko ekainaren 9an lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Hezkuntza Departamentuak eta Tuterako Udalak "Fernando Remacha" udal musika kontserbatorioaren kudeaketa eta finantzaketarako. Hartan, lankidetzarako baldintzak ezartzen dira, batetik musikako lanbide-irakaskuntzaren arloko hezkuntza zerbitzuaren prestazioaren funtzionamendu egokia bermatzeko eta, bestetik, 2014-2016 aldirako diru-laguntza bidezko finantzaketa zuzenerako. Hitzarmen horri urtebeteko iraunaldia geratzen zaio, eta Hezkuntza Departamentuaren borondatea da hartan ezarritakoa errespetatzea. Hori dela eta, "Fernando Remacha" udal musika kontserbatorioaren finantzaketa, Nafarroako Gobernuari dagokionean, gutxienez ere 2016. urtearen amaierara arte dago bermatuta.

Testuaren hirugarren klausulan adostu zen Hezkuntza Departamentuak azterlan bat eginen duela Tuterako "Fernando Remacha" udal musika kontserbatorioaren finantzaketari, kudeaketari eta zerbitzuari buruz, hitzarmenak dirauen epean, kudeaketa-modua edo finantzaketa-formula hobetzeari buruzko proposamenak aztertu eta egiteko. Bi aldeen helburu horri dagokionez, berriki Lankidetzaren Hitzarmenerako Jarraipen Batzordea bildu izan da. Tuterako Udalak adierazi du 2016ko maiatzeko gaia aztertzen duten txosten teknikoak eduki nahi dituela. Hartara, Hezkuntza Departamentua hirugarren klausulan aipatutako gaiak aztertzeko, analizatzeko eta baloratzeko lanetan sartuta dago, eta lan horien xedea da 2017tik aurrera Nafarroako Erriberan musika-irakaskuntzak finkatzea eta garatzea bideratuko dituen eredu bat aurkitzea.

2014ko ekainaren 9an Hezkuntza Departamentuak eta Tuterako udalak sinatutako lankidetzaren hitzarmenak 2016ko aurrekontu-ekitaldirako ekarpena finkatzen du, eta dio "berrehun eta hogeita bat mila bederatzehun eta laurogeita bost euro eta hirurogeita hamar zentimo bitartekoa (221.985,70 euro)" izanen dela.

2016an zentroa finantzatzen laguntzeko Hezkuntza Departamentuak Tuterako Udalarentzat aurreikusitako diru-laguntza 221.985,70 eurokoa da.

Iruñean, 2015eko abenduaren 24an.

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña